# 2019 2023

## Legealdirako Planaren kudeaketa memoria

## Memoria de gestión del Plan de Legislatura



TOLOSA

# Aurkibidea
# Índice

Orrialdea / Página


04 **AURKEZPENA**
Presentación



06 **HERRITARREN ARLOA**
Ámbito de ciudadanía



36 **LURRALDE ARLOA**
Ámbito de territorio



52 **ANTOLAKUNTZA ARLOA**
Ámbito de organización



Tolosar agurgarria:

Badirudi atzo aurkeztu geniela herritarrei 2019-2023 Legegintzaldirako Kudeaketa Plana. Tolosa hobetzeko aurreikuspenak, konpromisoak eta proiektuak, ia osorik betetzea eta gauzatzea lortu dugun plan batean jasoak.

Azpimarratzekoa da krisi handiek markatutako legegintzaldia izan dela; lehenik eta behin, osasun-krisi globala, munduaren geldialdia eta bizilagun askoren heriotza ekarri zuena; eta, gero, aurrekaririk gabeko krisi ekonomikoa, Ukrainaren inbasioaren ondoriozkoa, guztiok pairatzen ari garena.

Gehiegi izan dira, beraz, denbora guzti honetan bizi eta sentitu ditugun zirkunstantziak. Eta tolosar guztien beharrei erantzutea izan da gure lehentasuna une oro, inor alde batera utzi gabe, pertsonak beti erdigunean jarriz.

Gure helburu eta zeregin nagusia, lehenengo egunetik, udal baliabideak eraginkortasunez, zintzotasunez eta gardentasunez kudeatzea izan da. Horregatik, legealdiaren amaierara iritsita, Gobernu garen aldetik, gardentasunaren azken ariketa bat egin behar dugu, zuen aurrean kontuak emateko ariketa bat, Udal honetatik ia lau urte hauetan egindako kudeaketari dagokionez.

Jarraian, proposatutako hasierako helburuen, gauzatutako ekintzen edo garapen-fasean dauden proiektuen laburpena aurkituko duzu.

Espero dut kudeaketa-memoria hau interesgarria izatea.

Agur bero bat,

**Olatz Peon Ormazabal**
Tolosako alkatea

Estimado/a tolosarra:

Parece que fue ayer cuando presentamos ante la ciudadanía el Plan de Gestión para la Legislatura 2019-2023. Previsiones, compromisos y proyectos para mejorar Tolosa recogidos en un plan que hemos conseguido cumplir y llevar a cabo casi en su totalidad.

Cabe destacar que ha sido una legislatura marcada por grandes crisis; una crisis sanitaria global en primer lugar, la cual supuso el parón del mundo y el fallecimiento de muchas y muchos vecinos; y una crisis económica sin precedentes después, derivada de la invasión de Ucrania, y que todas y todos estamos padeciendo.

Han sido, por tanto, demasiadas las circunstancias que hemos vivido y sentido durante todo este tiempo. Y nuestra prioridad en todo momento ha sido responder a las necesidades de todas y todos los tolosarras, sin dejar a nadie de lado, poniendo siempre a las personas en el centro.

Nuestro principal objetivo y cometido ha sido, desde el primer día, gestionar con eficacia, honestidad y transparencia los recursos municipales. Es por eso que, llegados a este final de legislatura, como Gobierno, nos vemos en la obligación de realizar un último ejercicio de transparencia, un ejercicio de rendición de cuentas, ante vosotras y vosotros, en relación a la gestión realizada durante estos casi cuatro años desde este Ayuntamiento.

A continuación podrás encontrar un breve resumen de los objetivos iniciales planteados, las acciones llevadas a cabo o los proyectos que están en fase de desarrollo.

Espero y deseo que esta memoria de gestión pueda serte de interés.

Un cordial saludo,

**Olatz Peon Ormazabal**
Alcaldesa de Tolosa



# Herritarren arloa

# Ámbito de ciudadanía

**Arlo honetako lau urte hauetako aurrekontuaren batura 78.137.160 €-koa izan da, hau da, udal-aurrekontu osoaren % 49,70.**

Arlo honetan, legegintzaldi honetan, udalak honako helburu hauek lortu nahi izan ditu:

- **Tolosan bizi diren pertsonen gizarte-babesa bermatzea, emandako zerbitzuak indartzea eta etxebizitza-aukera berriak eskaintzea.**
- **Tokiko ekonomiaren garapena sustatzea, ekintzailetza bultzatuz eta merkataritza eta ostalaritza, larunbatetako merkatua, azoka bereziak eta turismoa bultzatuz.**
- **Herritartasun aktiboa eta herri bizia eta dinamikoa bultzatzea, kultura, kirola eta aisialdiaren sustapenaren eta partaidetzaren bitartez.**
- **Berdintasunean aurrerapausoak ematea, Tolosa berdinzaleago baten alde, emakumeen ahalduntzea sustatuz.**

La suma del presupuesto de estos cuatro años en este ámbito ha ascendido a 78.137.160 € representando un 49,70 % del total de presupuesto municipal.

En este ámbito, durante esta legislatura, desde el Ayuntamiento nos habíamos marcado favorecer la consecución de los siguientes objetivos:

- Garantizar la protección social de las personas que viven en Tolosa, reforzar los servicios prestados y ofrecer nuevas alternativas de vivienda.
- Fomentar el desarrollo de la economía local apoyando el emprendimiento e impulsando el comercio y la hostelería, el mercado de los sábados, las ferias especiales y el turismo.
- Impulsar una ciudadanía y una ciudad activa y dinámica a través de la participación y la promoción de la cultura, la práctica del deporte y el disfrute del ocio.
- Promover una Tolosa más igualitaria fomentando el empoderamiento de las mujeres en Tolosa.

# Gizarte-babesari dagokionez

## En relación con la protección social





**> Etxez etxeko laguntza-zerbitzua indartu da, arreta hobea emateko.** Zerbitzua behar zuten pertsona eta/edo familia guztiei zerbitzua bermatu zaie. Gainera, zerbitzuaren benetako kostutik beherako prezio publikoa ezarri da, zerbitzua herritarrentzat eskuragarriagoa izan dadin.

Gaur egun, 196 pertsonari ematen zaie etxez etxeko laguntza-zerbitzu hori.

Zerbitzu horretarako aurrekontua 961.517 €-koa izan da 2022an, eta aurreikuspenen arabera 1.084.000 €-koa izango da 2023ko ekitaldian.

**> Laguntza eta prestakuntza zerbitzua aktibatu da mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileentzat.**

**> Se ha reforzado el servicio de ayuda a domicilio para una mejor atención.** Por una parte, se ha garantizado el servicio a todas aquellas personas y/o familias que requerían del servicio. Además, se ha establecido un precio público por debajo del coste real del servicio, de manera que el servicio sea más accesible para la ciudadanía.

En estos momentos se presta este servicio de ayuda a domicilio a 196 personas.
El presupuesto destinado a este servicio durante 2022 ha sido de 961.517 € y está previsto que ascienda a 1.084.000 € durante el ejercicio de 2023.

**> Se ha activado un servicio de acompañamiento y formación para las personas cuidadoras de personas dependientes.**

**> Adinekoentzako Eguneko Arreta Zerbitzua sortu da,** egunerorako talde-espazio bat eskaini, mendekotasunari aurre hartu eta autonomiari eusteko jarduerak sustatzeko, espezializatutako profesional baten dinamizazioarekin, adinak, isolamenduak eta gaixotasunek sortzen dituzten berezko arriskuak gainditzeko.

**> Herritarren oinarrizko premien estaldura bermatu da, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak kudeatuz.** Udalak kudeatu ditu Eusko Jaurlaritzak udalerri bakoitzari oinarrizko premietarako esleitzen dizkion Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak: ostatua, energia-hornidurak eta/edo familia-etxea mantentzea.

2022an 481 pertsona/familia artatu dira, eta 242.712,01 € bideratu dira kontzeptu horretara.

**> Se ha creado el Servicio de Atención Diurna para personas mayores,** que persigue ofrecer un espacio grupal diario, con la dinamización de una profesional especializada en promover actividades para prevenir la dependencia y mantener la autonomía, superando los riesgos propios que generan la edad, el aislamiento y las enfermedades.

**> Se ha garantizado la cobertura de las necesidades básicas de la ciudadanía, mediante la gestión de las Ayudas de Emergencia Social.** El Ayuntamiento ha gestionado las Ayudas de Emergencia Social que asigna a cada municipio el Gobierno Vasco para necesidades básicas: alojamiento, suministros de energía y/o mantenimiento del hogar familiar.

Era berean, **diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko udal-prestazioaren partida indartu da.** Zenbatekoa oinarrizko premiak asetzeko erabili da, hala nola ostatua, mantenua, haurren premiak eta/edo farmazia, beste eskubidezko prestazio mota batzuk eskatzeko beharrezko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonei eta familiei, hala nola DSBE edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.

2022an 143 pertsona/familia artatu dira, eta kontzeptu horretara 151.794,55 € bideratu dira.

**> Bazterkeria-egoeran dauden pertsonei arreta integrala emateko zerbitzu berria Abegi zentroan.** (2023an irekiera, gau eta eguneko zerbitzua). Gizarte-bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonen oinarrizko premiei erantzuteko zerbitzu publikoa eratu ahal izan da, talde profesional batek kudeatzeko aukera gehituz, orain arte pertsona horiei sostengua eskaintzeaz arduratu den boluntarioen taldearekin lankidetzan. Era berean, zerbitzua eguneko arretarekin osatu da, arreta integralagoa eta jarraituagoa eskaintzeko. Une honetan, martxan daude espazioa zerbitzu publiko baten arauzko errekerimendura egokitzeko behar diren obrak, eta aldi berean, kontratu publikoa esleitzeko prozesua abiatuta dago, zerbitzuaren kudeaketa egokia bermatzeko.

2022an 481 pertsona/familia artatu dira Eusko Jaurlaritzak udalerriari esleitzen dizkion gizarte-larrialdietarako languntzekin

En 2022 se han atendido a 481 personas/familias y la cuantía destinada a este concepto ha ascendido a 242.712,01 €.

De la misma forma, **se ha reforzado la partida de la prestación municipal "Ayuda para la garantía de ingresos y para la inclusión".** La cuantía se ha destinado a cubrir las necesidades más básicas como el de alojamiento, manutención, necesidades infantiles y/o farmacia a personas y familias que no cumplen con los requisitos necesarios para solicitar otros tipos de prestaciones de derecho como la RGI, o las Ayudas de Emergencia Social.





En 2022 se han atendido a 143 personas/familias y la cuantía destinada a este concepto ha ascendido a 151.794,55 €.

**> Nuevo servicio de atención integral a personas en situación de exclusión en el centro Abegi.** (Apertura 2023, servicio de día y noche). Se ha podido articular la creación de un servicio público para atender las necesidades básicas de las personas en grave situación de exclusión social incorporando la posibilidad de gestión de un equipo profesional en colaboración con el equipo de voluntarios que hasta el momento se ha encargado de ofrecer el sustento a estas personas. A su vez, se ha complementado el servicio con la atención diurna, ofreciendo una atención más integral y continuada. En este momento, se están ejecutando las obras necesarias para acondicionar el espacio al requerimiento normativo de un servicio público, y a su vez, se está desarrollando el proceso de adjudicación del contrato público para garantizar la correcta gestión del servicio.

**> Esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzu berria.** Zerbitzu hori indartu egin da, indarrean dagoen araudiari egokituz. Lantalde espezializatu bat egituratu da babesgabetasun- eta/edo babesgabezia-arriskuan dauden adingabeen eta haien gurasoen eta familien, bazterketa-arriskuan dauden pertsonen eta mendekotasun-arriskuan dauden pertsonen premiei aurrea hartu eta horiei erantzuteko. Zerbitzu integrala da, hezkuntza-prestazioak eta prestazio terapeutikoak uztartzen dituena, babesgabetasun-egoeren larritasun-maila ebaluatzeko, osasungarriak ez diren zaintza- eta harreman-ohiturak detektatzeko eta alderatzeko, eta jarraibide osasungarriagoak eta babesgarriagoak eskuratzeko.

**> Nuevo servicio de Intervención socioeducativa y psicosocial.** Este servicio se ha reforzado adecuándolo a la normativa vigente. Se ha estructurado un equipo de trabajo especializado para prevenir y atender las necesidades de personas menores de edad en situación de riesgo de desprotección y/o desamparo y sus padres, madres y familias; personas en riesgo de exclusión y personas en riesgo de dependencia. Se trata de un servicio integral que combina prestaciones educativas, y terapéuticas, para evaluar el nivel de gravedad de las situaciones de desprotección, detectar y eliminar hábitos de cuidado y relación poco saludables, y adquirir pautas más sanas y protectoras.













En 2022 se han atendido a 481 personas/familias con las ayudas de emergencia social que ha destinado el Gobierno Vasco al municipio.

**> Adikzioen aurkako Tokiko Plana berritu da,** egungo errealitateari eta beharrei buruzko informazioa eguneratzeko eta errealitate horri egokitutako ekintza-plana diseinatzeko. Planaren indarraldian garatu beharreko zenbait jarduera biltzen ditu Planak (2021-2025).

> Sailaren lantalde teknikoa indartu da **elkartegintza, boluntariotza eta partaidetzako programa bat sortzeko,** Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren eremuan modu formalean edo informalean esku hartzen duten inplikatutako pertsonekin, familiakoekin eta gizarte-eragileekin koordinazio- eta lankidetza-sistemak dinamizatzeko eta ezartzeko.

**> Se ha renovado el Plan Local contra las Adicciones** para actualizar la información sobre la realidad y necesidades actuales, y diseñar un plan de acción ajustado a esa realidad. El Plan contiene una serie de actividades a desarrollar durante la vigencia del plan (2021-2025)

> Se ha reforzado el equipo técnico del Departamento para crear un **programa de Asociacionismo, voluntariado y participación para dinamizar e implementar sistemas de coordinación y colaboración** con las personas implicadas, familiares y agentes sociales que intervienen formal o informalmente en el ámbito de Servicios Sociales y Salud.









**> Zerbitzuen eta prestazioen gida bat argitaratu da, Tolosako herritarrek informazioa errazago eskura dezaten,** Sailean ematen den zerbitzuari eta gizarte-zerbitzuen euskal sistema osatzen duten baliabideei buruzko informazioa emateko. Gida hau irakurketa errazera eta kultur aniztasunera ere egokitu da.

**> Ekimen berriak landu dira beste erakunde, eragile eta entitate batzuekin lankidetzan,** komunitate-mailan esku hartu eta zerbitzuen prebentzioa eta hobekuntza sustatuz, herritarren ongizatea hobetzeko:

> Se ha publicado una **guía de servicios y prestaciones para facilitar el acceso a la información a la ciudadanía de Tolosa,** informando sobre el servicio que se presta en el Departamento y sobre los recursos que forman el sistema vasco de servicios sociales. Esta guía también fue adaptada a "lectura fácil" y a la diversidad cultural.

**> Se han trabajado nuevas iniciativas en colaboración con otras instituciones, agentes y entidades** para intervenir a nivel comunitario y promover la prevención y mejora de servicios destinados a mejorar el bienestar de la ciudadanía:





- **Adinkide,** gizartean eta familian isolatuta dauden adinekoak detektatzeko, boluntarioekin harremanak eta laguntza sustatzeko. (Gipuzkoako Foru Aldundia).

- **HARIAk** estrategia bateratua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adinekoen bakardadeari aurre egiteko.

- **OK Etxean.** Zaintzaileei laguntzeko baliabide teknologikoei buruzko azterlana.

- Adinekoen zaurgarritasun-egoeretarako tresna diagnostikoaren azterketan lan egitea (Hurkoa Fundazioa Deustuko Unibertsitatearekin).

- **Adinbera.** Muñoa Fundazioak sustatutako azterlanean laguntzea, adinekoen ongizatean eragiten duten faktoreak definitzeko (Biodonostia).

Udal-espazio baten lagapena koordinatu da, autonomia-erkidegoaren eskumeneko hainbat zerbitzuk (Familia Elkargunea, Familia Bitartekaritza eta Aholku Sarea) Tolosan zerbitzua modu egituratuan eman ahal izan dezaten.

- **Adinkide** para la detección de personas mayores en situación de aislamiento social y familiar, para promover relaciones y acompañamiento con voluntariado. (Diputación Foral de Gipuzkoa).

- **HARIAk** estrategia conjunta con la Diputación Foral de Gipuzkoa para combatir la soledad de las personas mayores.

- **OK en Casa.** Estudio sobre medios tecnológicos para acompañamiento y apoyo a personas cuidadoras.

- Colaboración en el Estudio de la herramienta diagnóstica para situaciones de vulnerabilidad en personas mayores (Fundación Hurkoa con la Universidad de Deusto).

- **Adinbera.** Colaboración en el estudio promovido por la Fundación Muñoa, para definir factores que inciden en el bienestar de personas mayores (Biodonostia).

Se ha coordinado la cesión de un espacio municipal para que diferentes servicios de competencia autonómica (Punto de Encuentro Familiar, Mediación Familiar y Aholku Sarea) puedan prestar servicio en Tolosa, de manera estructurada.







# Etxebizitzaren arloan

## En materia de vivienda

**> Etxebizitza-aukera berriak sortu dira, alokairuaren aldeko apustu argia eginez.** Lehenik eta behin, azterlan bat egin zen Tolosako etxebizitza hutsen parkea eta biztanleen beharrak ezagutzeko. Egindako azterlanean oinarrituta, hainbat ekimen jarri dira abian etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emateko:

- **Alokairua ordaintzeko laguntzak:** lehen aldiz, Udalak alokairu-gastuak ordaintzeko laguntza-lerro bat sortu du. Dirulaguntza hau batez ere gazteei zuzenduta dago, baina beste kolektibo batzuei ere zabaldu zaie laguntza: banandutako pertsonak, 70 urtetik gorakoak, alargunak. Udalak 40.000 euroko partida jarri du urtero.
- **Etxebizitza hutsak birgaitzeko laguntzak, Alokabideren bidez alokairuan jartzeko.** Dirulaguntza honen helburua jabeei etxebizitzak eraberritzeko erraztasun handiagoak ematea da, ahalik eta etxebizitza huts gehienak erregimen babestuan alokairuan jar daitezen. Udalak Eusko Jaurlaritzaren laguntza osatzen du. Urteko 70.000 €-ko partida jarri da.

**Informazio-kanpaina** bat ere egin da, herritarrek eskura dituzten laguntzen berri emateko.

Eta **bizitegi-eremu berriak sortzea bultzatu da, etxebizitza babestuen parkea handitzeko.** 60 etxebizitza tasatu (Iurramendi-San Cosme) eta alokairuan babeseko 111 etxebizitza (Amaroz) eraikiko dira, azken horiek Visesarekin lankidetzan.

**> Se han creado nuevas oportunidades de vivienda, en una clara apuesta por el alquiler.** En primer lugar se llevó a cabo un estudio para conocer el parque de viviendas vacías de Tolosa y las necesidades de la población. En base al estudio realizado se han puesto en marcha diferentes iniciativas con el objetivo de facilitar el acceso a la vivienda:

- **Ayudas para el pago del alquiler:** por primera vez, el Ayuntamiento ha creado una línea de ayudas para sufragar los gastos de alquiler. Esta subvención está dirigida principalmente a personas jóvenes, pero se ha ampliado la ayuda también a otros colectivos: personas separadas, mayores de 70 años, viudos y viudas... El ayuntamiento ha asignado una partida anual de 40.000 €.
- **Ayudas para la rehabilitación de las viviendas vacías para su puesta en alquiler por medio de Alokabide.** El objetivo de esta subvención es dar mayores facilidades a propietarios/as para la reforma de las viviendas, a fin de que el mayor número posible de viviendas vacías sean puestas en alquiler en régimen protegido. El Ayuntamiento complementa la ayuda del Gobierno Vasco. Se ha asignado una partida anual de 70.000 €.

Se ha realizado también una **campaña informativa** para dar a conocer las ayudas que tiene a su disposición la ciudadanía.

Y **se ha impulsado la creación de nuevas zonas residenciales con el objetivo de aumentar el parque de viviendas protegidas.** Se construirán 60 viviendas tasadas (Iurramendi-San Cosme) y 111 viviendas de alquiler protegido (Amaroz), estas últimas en colaboración con Visesa.

# Tokiko ekonomiaren garapenari dagokionez

# En relación al desarrollo de la economía local





## Enpresa txiki eta ertainen ekintzailetzari eta lehiakortasunari laguntzea.

2017an Emari-Coworking gunea abian jarri ondoren, azken 4 urteetan 2 hedapen-kanpaina egin dira EKIN jardunaldien bidez, bata 2019an eta bestea 2020an. Publiko espezifikoa erakartzeaz gain, jardunaldi horien bidez ikusgarritasuna eman zaie udalerriko zein eskualdeko gazte eta ekintzaile berriei, herritarren izaera ekintzaileari balioa emanez.

Era berean, ETEen enpresa-lehiakortasuna sustatzeko, eutsi egin zaie enpresei zuzendutako laguntzei, proiektu berriak gara ditzaten. Guztira, 18 proiektu finantzatu dira (51.770 €).

## Apoyo al emprendimiento y a la competitividad de las pymes.

Tras la puesta en marcha en el año 2017 del espacio Emari-Coworking, en los últimos 4 años se han realizado 2 campañas de difusión a través de las jornadas EKIN, una en 2019 y otra en 2020. Además de atraer un público específico, a través de estas jornadas se ha dado visibilidad a jóvenes y nuevos emprendedores tanto del municipio como de la comarca, poniendo en valor el espíritu emprendedor de la ciudadanía.

Asimismo, con el fin de promover la competitividad empresarial de las PYMES se han mantenido las ayudas dirigidas a empresas para que desarrollen nuevos proyectos. En total, se han financiado 18 proyectos por un importe de 51.770 €.

## Tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatzea

Merkataritza eta ostalaritza funtsezkoak dira Tolosako kaleak bizirik mantentzeko; merkataritza eta ostalaritza sektore indartsua duen hiri eredua defendatzen dugu.

Pandemian zehar, merkataritzak, ostalaritzak eta zerbitzuen sektoreak kaltetuta gertatu ziren. Horregatik, Udalak hainbat ekimen bultzatu zituen tokiko merkataritza eta zerbitzuak babesteko: guztira, gastu eta inbertsioetarako diruz lagundu daitezkeen 3 lerro jarri ziren martxan, tasen hobaria egin zen eta bonu-kanpainak egin ziren SUSPERTU TOLOSA programaren barruan. Guztira, 622 eskaera egin ziren, eta horietatik 575 (% 92,40) izan ziren onuradun; horien artean 395.799,73 € banatu ziren.

## Impulso al comercio local y a la hostelería

El comercio y la hostelería son fundamentales para mantener vivas las calles de Tolosa. Defendemos un modelo de ciudad con un sector comercial y hostelero fuerte.

Durante la pandemia el comercio, la hostelería y el sector servicios se vieron muy afectados. Por ello, desde el Ayuntamiento se impulsaron diversas iniciativas para apoyar el tejido local: en total se pusieron en marcha 3 líneas subvencionables para gastos e inversiones, se realizó la bonificación de tasas y se llevaran a cabo diferentes campañas de bonos dentro del programa SUSPERTU TOLOSA. En total, hubo 622 solicitudes de las cuales resultaron beneficiarios 575 (92,40 %) y entre los que se distribuyeron un total de 395.799,73 €.

Era berean, Tolosa & Co merkatarien elkartearekin hitzarmena sendotu da; 2021ean ordenantza berri bat garatu zen, belaunaldien arteko transmisioa indartuz (BERRIZ programa), proiektu berrietarako dirulaguntza lerro berri bat garatuz (EKIN programa), 3 urterako alokairu zein erosketarako, eta espazioak eta kaleak dinamizatzeko GUNE BIZIAK programari eutsiz. Guztira 23 proiektu/saltoki diruz lagundu dira, 177.150,05 euroko aurrekontuarekin.

Aurten, 2023an, ekintza berriak jarri dira abian Gipuzkoako Merkatarien Federazioarekin batera, besteak beste, prestakuntza-ikastaroak eta Singular Dendak programa, merkataritza-sektorea digitalizazioaren, profesionalizazioaren eta salmenta-ohitura berrien erronketan laguntzen eta indartzen jarraitzeko.

Gainera, ostalaritzari eta terrazei buruzko ordenantza berri bat garatu da, herriko jarduera errazteko eta herritarren eta udalerriko jarduera ekonomikoen arteko oreka eta bizikidetza ona bermatzeko.

## Larunbatetako azoka, garai berrietara egokituta

Azoka kontsumo-ohitura berrietara egokitzearekin batera, gazteak merkatura hurbiltzea izan da legegintzaldi hasieran abian jarritako Azoka Lagunak ekimenaren helburuetako bat, Tolosako merkatuari buruzko azterketa sakon bat egin ondoren. Ekimen honek 2.000 pertsona baino gehiagoko komunitatea osatu du, eta hilero sustapen-ekintza zehatzak egiten dira sasoiko produktuekin lotuta: hitzaldiak, tokiko ekoizleei bisitak, sukaldaritza-ikastaroak...

Azoka modernizatzeko, merkatuaren irudi berri bat ere sortu da, merkatuan parte hartzen duten ekoizleen informazioa biltzen duen webgune batekin batera, eta azokaren espazioak ere berrantolatu dira, Tolosako merkatuaren berezko nortasunari eutsiz.

También se ha reforzado el convenio con la asociación de Comerciantes Tolosa&Co; en el año 2021 se desarrolló una nueva ordenanza, fortaleciendo la transmisión generacional (programa BERRIZ), desarrollando una nueva línea subvencional para nuevos proyectos (programa EKIN) tanto para el alquiler como para la compra durante un periodo de 3 años y manteniéndose el programa GUNE BIZIAK para la dinamización de espacios y calles. En total se han subvencionado 23 proyectos/comercios con un presupuesto de 177.150,05 €.

Este año 2023 se han puesto en marcha nuevas acciones junto con la Federación de Comerciantes de Gipuzkoa, entre ellos, cursos formativos y el programa Singular Dendak, para seguir acompañando y reforzando el sector del comercio en los retos de la digitalización, profesionalización y nuevos hábitos de venta.

Además, se ha desarrollado una nueva ordenanza de hostelería y terrazas para favorecer la actividad de la localidad, garantizando, el equilibrio y la buena convivencia entre vecinos/as y las actividades económicas del municipio.








## Mercado de los sábados, adaptado a las nuevos tiempos

Acercar a las personas jóvenes al mercado junto con la adaptación de la Azoka a los nuevos hábitos de consumo han sido algunos de los objetivos de la iniciativa Azoka Lagunak puesta en marcha a principios de legislatura tras un estudio exhaustivo sobre el mercado de Tolosa para identificar los pasos a seguir para posicionarlo y fortalecerlo de cara al futuro. Esta iniciativa cuenta ya con una comunidad de más de 2.000 personas y cada mes se realizan acciones concretas de promoción ligados a los productos de temporada: charlas, visitas a productores locales, cursos de cocina...

Para la modernización de la Azoka también se ha creado una nueva imagen del mercado junto con una web que recoge la información de las /los productores participantes en el mercado y también se han reorganizado los espacios de la feria manteniendo la identidad propia del mercado de Tolosa.







## ELIKER, Kalitatezko Elikaduraren Zentro berria, sektorearen etorkizuneko garapenerako

2022an abian jarritako ekimen honen helburua elikagaien sektorearen etorkizuneko garapena sustatzea da. Bere lan-ildoen artean honako hauek nabarmentzen dira: zerbitzu eta produktu berriak sortzea edo azoka bereziak indartzea, Tolosa gastronomia-azoken jomugan jarri eta tokiko produktuak merkaturatzeko gune estrategiko gisa azoka berriak sortzea.

2022an Euskal Herri osoko gazta eta esnekien azoka berri bat egin zen, ESNEKI, 2023. urtean jarraituko duena, eta ekintza plan zehatz bat prestatu da urte honetarako, elikadura kate osoa osatzen duten ekoizle eta eragileekin elkarlanean lan egiten jarraitzeko helburuarekin. Besteak beste, haragi eta alkohol baxuko edarien ekoizpenarekin lotutako hainbat lankidetza-proiektu egingo dira.






## Tolosa, helmuga turistikoa

Turismoa aukera bat da Tolosarentzat, bertako ehun ekonomikoan duen eragin zuzen eta positiboagatik.

Aurreko legealdian martxan jarritako turismo jasangarrirako estrategiari jarraipena emanez, Tolosaren proiekzioan lan egin da hiribildura bisitari berriak erakartzeko eta eskaintza turistikoa eskari berrietara egokitzeko, batez ere digitalizazioari dagokionez. Horri lotuta, eta hiri-marka indartzeko helburuarekin, plano turistiko berriak, Tolosako merchandisinga eta audiogidak sortu dira, zure kontura bisita gidatu bat egin ahal izateko.

## ELIKER, nuevo Centro de la Alimentación de Calidad, para el desarrollo futuro del sector

Esta iniciativa puesta en marcha en 2022 tiene como objetivo promover el desarrollo futuro del sector alimentario. Entre sus líneas de trabajo destacan: la creación de nuevos servicios y productos o el fortalecimiento de las ferias especiales y creación de nuevas ferias para reforzar Tolosa como destino de ferias gastronómicos y como punto estratégico de comercialización de los productos locales.

Ya en 2022 se llevó a cabo una nueva feria de quesos y lácteos de toda Euskal Herria, ESNEKI, la cual tendrá continuidad este año 2023, y se ha elaborado un plan de acción concreto para este año con el objetivo de seguir trabajando de forma colaborativa con los productores y agentes que conforman toda la cadena de alimentación. Entre otras, se realizarán varios proyectos colaborativos ligados a la producción de carne y las bebidas bajas en alcohol.

## Tolosa, destino turístico

El turismo es una oportunidad para Tolosa, debido a su influencia directa y positiva en el tejido económico local.

Dando continuidad a la estrategia de turismo sostenible puesta en marcha en la pasada legislatura, se ha trabajo en la proyección de Tolosa para atraer nuevos visitantes a la villa y la adaptación de la oferta turística a las nuevas demandas, sobre todo, en lo que a la digitalización se refiere. A ese respecto y con el objetivo de reforzar la marca de ciudad se han creado nuevos planos turísticos, merchandising propio de Tolosa y audioguías para poder hacer una visita guiada por tu cuenta.

Tolosako erdigunean **Turismo bulego berria** irekitzeak, halaber, emandako arreta hobetzea, gizarteratzea eta Tolosak ondare kultural, natural eta gastronomikoari dagokionez eskaini dezakeen guztia ezagutaraztea ahalbidetu du. Horri esker, bisitari berriak erakarri eta datu turistikoak hobetu dira urtez urte.

La apertura de la **nueva oficina de Turismo** en el centro de Tolosa ha permitido, también, mejorar la atención prestada, socializar y dar a conocer todo lo que Tolosa puede ofrecer en cuanto a patrimonio cultural, natural y gastronómico. Ello ha permitido atraer nuevos visitantes y mejorar los datos turísticos año tras año.

**Turismo bulegoak urtez urte artatutako bisitarien kopurua**
Número de visitantes atendidos por la oficina de turismo año tras año.

| 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| 8.392 | 4.764* | 6.252* | 9.562 |

* Covid-19.






Tolosako Turismo bulego berriari esker, bisitari berriak erakarri eta datu turistikoak hobetu dira urtez urte





La apertura de la nueva oficina de Turismo ha permitido atraer nuevos visitantes y mejorar los datos turísticos año tras año





## Kalitatezko enplegua

Legegintzaldi honetan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira Apattaren bigarren fasearen garapenari dagokionez. Laster, urbanizazio-proiektua onartuko da, industria-gune berri bat sortzeko, Tolosara enpresa traktore berriak erakarri eta enplegua sortzeko.

Tolosaldea Garatzen eskualdeko agentziarekin batera, urtez urte Enplegu Planak eta urteko Enplegu Azoka bultzatu dira, Tolosako eta Tolosaldeko langabeei enplegu-aukera berriak sortzeko eta eskaintzeko.

## Empleo de calidad

Durante esta legislatura se han dado avances importantes en lo que al desarrollo de la segunda fase de Apatta se refiere. En breve se aprobará el proyecto de urbanización para la creación de un nuevo espacio industrial que permita atraer nuevas empresas tractoras a Tolosa para generar empleo.

Junto con la Agencia comarcal Tolosaldea Garatzen, se han impulsado año tras año Planes de Empleo y la Feria anual de empleo a fin de generar y ofrecer nuevas oportunidades de empleo a las personas desempleadas de Tolosa y Tolosaldea.

## Kultura, kirola eta aisialdiaren sustapenaren eta partaidetzaren bitartez

# herritartasun aktiboa eta herri bizia eta dinamikoa bultzatzeari dagokionean

# En cuanto a impulsar una ciudadanía y una ciudad activa

## a través de la participación y la promoción de la cultura, la práctica del deporte y el disfrute del ocio








### Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantza berria eta parte-hartze ataria

Garai berriek administrazioaren eta herritarren arteko komunikazio eta harreman modu berriak eskatzen dituzte. Parte-hartzeak gero eta indar eta protagonismo handiagoa hartu du udal-politiketan.

Aurten parte-hartze digitala barne hartu duten aurrekontu parte-hartzaileez gain, legegintzaldi honetan Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantza berria egin da, parte-hartzea arautu eta bultzatzeko eta herritarren eta Udalaren arteko zubiak sendotzeko tresna gisa. Halaber, parte hartzeko prozesuei buruzko atari bat sortu da, garatutako, abian dauden edo etorkizunean izango diren prozesuei buruzko informazio guztia herritarren eskura jartzeko.

### Nueva Ordenanza de Gobernanza, Participación y Transparencia y portal de participación

Los nuevos tiempos exigen nuevas formas de comunicación y relación entre administración y ciudadanía. La participación ha adquirido cada vez mayor fuerza y protagonismo en las políticas municipales.

Además de los presupuestos participativos en los que este año se ha incluido la participación digital, durante esta legislatura, se ha elaborado una nueva Ordenanza de Gobernanza, Participación y Transparencia como instrumento para regular e impulsar la participación y consolidar los puentes entre ciudadanía-Ayuntamiento. También se ha creado un portal sobre los procesos participativos a fin de poner a disposición de la ciudadanía toda la información sobre los procesos desarrollados, en marcha o futuros.

### Tolosatzen Eskola Irekia komunitatea indartzeko

Lankidetza-proiektu honen helburua, herritarrak ahaldundu, ezagutzan sakondu, hausnartu eta hainbat gaitasun eta arlotan gaitzeko espazio bat eskaintzea da

Urtez urte, parte-hartzea handituz joan da. Joan den ikasturtean 33 jarduera egin ziren, eta adin desberdinetako 1.150 pertsonak parte hartu zuten.

### Escuela Abierta Tolosatzen para fortalecer la comunidad

Este proyecto colaborativo tiene como objetivo ofrecer a la ciudadanía un espacio para el empoderamiento, conocimiento, reflexión y formación en diferentes capacidades y áreas.

Año tras año, la participación ha ido en aumento. El pasado curso se llevaron a cabo 33 actividades, con una participación de 1.150 personas de diferentes edades.






## Herritarren parte-hartzean aitzindariak, Tolosako Herritarren Batzarraren bidez

Tolosa izan da Euskal Autonomia Erkidegoan deliberazio-prozesu bat sustatu duen lehen udalerria. Zozketa zibikoz aukeratutako 32 tolosarrek osatu dute Tolosako Herritarren Batzarra, eta osasun eta ongizate emozionalari buruz eztabaidatu dute. Herritarren Batzarrak 14 gomendio prestatu eta aurkeztu dizkio Udalari.

## Pioneros en participación ciudadana por medio de la Asamblea Ciudadana de Tolosa

Tolosa ha sido el primer municipio de Euskadi en promover un proceso deliberativo representativo. 32 tolosarras elegidos por sorteo cívico han conformado la Asamblea Ciudadana de Tolosa, la cual ha deliberado sobre la salud y el bienestar emocional. La Asamblea Ciudadana ha elaborado y presentado 14 recomendaciones al Ayuntamiento.

## Tolosa, espacio vital para el euskera

Fomentar políticas lingüísticas eficientes para que Tolosa sea un "arnasgune" espacio vital del euskera ha sido clave. Se ha creado

## Tolosa, euskararen arnasgunea

Hizkuntza-politika eraginkorrak sustatzea funtsezkoa izan da Tolosa arnasgune izan dadin. Euskararen Aholku Batzordea eta Euskara Sustatzeko 2021-2024 Ekintza Plana sortu dira. Baita eskualdeko euskara mahaia eta Tolosaldepedia ere, euskarazko Wikipedia sustatzeko.

## Tolosa dinamikoa eta kulturalki bizia

Tolosako dinamismoa eta bizitza, neurri handi batean, hainbat eragileren lanari zor zaio. Horregatik, Udalak tokiko eragile eta talde guztien lana babestu du urte hauetan guztietan, emandako dirulaguntzen bidez. Kultur proiektu berriak bultzatu dira, hala nola ToloFOLK edo Kultura Plazara.

la Comisión Asesora del Euskera y el Plan de Acción 2021-2024 para la Promoción del Euskera. También la mesa de euskera a nivel comarcal y Tolosaldepedia para impulsar la Wikipedia en euskera.

## Una Tolosa dinámica y culturalmente viva

El dinamismo y la vida de Tolosa se deben, en gran parte, al trabajo de distintos agentes. Por ello, el Ayuntamiento ha apoyado la labor de todos los agentes y grupos locales durante todos estos años a través de las subvenciones concedidas. Se han impulsado nuevos proyectos culturales como ToloFOLK o Kultura Plazara.












## Kirol eta aisialdi eskaintza Tolosan

Sailaren aurrekontua %18 handitu da, eta taldeentzako laguntzak ere handitu dira, taldeen eta/edo begiraleen profesionalizazioa sustatzeko. Horrek nabarmen indartu ditu eskolakirola eta klubak.

Genero ikuspegiari dagokionez, emakumezkoen kirola sustatu da eta jarduera berriak garatu dira: Emakumezkoen Euskal Saskibaloi Kopa, emakumezkoen Pentatloia eta emakumezkoen pilota.

## Oferta deportiva y de ocio en Tolosa

El presupuesto del departamento ha aumentado un 18 % y también han aumentado las ayudas a los a grupos para impulsar la profesionalización de los grupos y/o monitores, lo cual ha reforzado el Deporte Escolar y los clubs de forma significativa.

En cuanto a la perspectiva de género, se ha promovido el deporte femenino y se han desarrollado nuevas actividades: Copa Vasca Femenina de Baloncesto, Pentatlón femenino y pelota femenina.

Tolosak bat egin du MUGIMENT kirol txartelarekin, udal kirol zerbitzuetako abonatuek programari atxikitako beste udalerri batzuetako kirol instalazioetan sartzeko aukera izan dezaten.

Tolosa MUGIa ere indartu da, laguntza-sarea handituz eta triziklo elektriko baten bidez, ibilaldi osasungarri horiek guztiek egin ahal izateko.

Kirol-instalazioak hobetu dira eta aisialdirako eta kirolerako espazio berriak bultzatu dira:

- **Usabal:** belar artifiziala futbol-zelaian, fitnessa berritzea eta kirolgune berriaren sustapena (Usabalen 3. fasea): pumptrack, trial eta skate espazio berriak eta ibaiaren ondoan pasealekua sortzeko.
- **Berazubi:** bulego berriak eta Kfit aretoa berritzea.
- **Beotibar:** sarrera irisgarri berria, argiak berritzea (LED argiak) eta kantxa margotzea.
- **Uzturpe:** estalkiaren, sarbide-sistemaren, gimnasioaren eta argien berritzea eta kantxa pintatzea.

## Haur, Gazte eta Nerabeen Plan berria 2023-2027

Tolosatzen Eskola Irekiaren edo Haurren Hiriaren bidez gazteen parte hartzea bultzatzeaz gain, Tolosako Haur, Gazte eta Nerabeentzako Ekintza Plana garatu da, eragile eta gazteekin batera, gazteen beharrei eta eskaerei erantzuteko eman beharreko esku-hartzeak eta zerbitzuak definitzeko. 5 lan-ildo eta 69 ekintza zehatz dituen plana da eta 2023-2027 bitartean garatuko dena.

Tolosa se ha adherido a MUGIMENT kirol txartela para que las personas abonadas a los servicios municipales de deporte puedan acceder a otras instalaciones deportivas de otros municipios adscritos al programa.

Se ha reforzado MUGI Tolosa, ampliando la red de apoyo y a través de un triciclo eléctrico que permita a todas y a todas realizar dichos paseos saludables.

Se han mejorado las instalaciones deportivas e impulsado nuevos espacios de ocio y deporte:

- **Usabal:** hierba artificial en el campo de futbol, renovación fitness y nueva zona de deporte (fase 3 de Usabal) con espacios pumptrack, trial y skate y un paseo junto al río.
- **Berazubi:** nuevas sede-oficinas y renovación sala Kfit.
- **Beotibar:** nueva entrada accesible, renovación luminarias (luces LED) y pintado de cancha.
- **Uzturpe:** renovación cubierta, sistema de acceso, gimnasio, luminarias y pintado de cancha.

## Nuevo Plan de Infancia, Juventud y Adolescencia 2023-2027

Además de impulsar la participación juvenil por medio de Tolosatzen Eskola Irekia o Haurren Hiria, se ha desarrollado el Plan de Acción de Infancia, Juventud y Adolescencia de Tolosa, junto a agentes y jóvenes para definir las intervenciones y servicios a prestar atendiendo a las necesidades y peticiones de las personas jóvenes. Un plan con 5 líneas de trabajo y 69 acciones concretas que se desarrollará entre 2023-2027.

# Tolosa parekideagoa sustatzeari dagokionez

## En relación a promover una Tolosa más igualitaria










### ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

Aurten 2023an irekiko ditu ateak ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxeak. Eskualde osoari zerbitzua emango dion topagune berri bat. Emakumeak ahalduntzeko eta gizartea eraldatzeko tresna, Tolosa berdinzaleago eta feministago baten alde.

ANDRAGORA sortzeko prozesua 2016an hasi zen. Harrezkero, hainbat partaidetza-prozesu egin dira etxea definitzeko; Udalak obra-proiektua garatu eta lanak gauzatu ditu, ekipamenduaren inbertsio osoa finantzatuz: 783.914,54 €.

### ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

Este año 2023 abrirá sus puertas la Casa de las Mujeres de Tolosaldea. Un nuevo espacio de encuentro que dará servicio a toda la comarca. Una herramienta para el empoderamiento de las mujeres y la transformación de la sociedad a favor de una Tolosa más igualitaria y feminista.
El proceso para su creación se inició en 2016. Desde entonces se han llevado a cabo varios procesos participativos para definir la casa; el Ayuntamiento ha desarrollado el proyecto de obra y ejecutado los trabajos. El Ayuntamiento ha financiado la inversión total del equipamiento que asciende a 783.914,54€.

### Indarkeria matxistaren aurkako jarduera-protokolo berria

I. protokoloaren ebaluazioa eta ondorioak egin ondoren, legegintzaldi honetan indarkeria matxistaren aurkako II. jarduera eta erakundeen arteko koordinazio protokoloa idatzi da emakumeen eta beste biktima batzuen arreta hobetzeko.

### Jaien Behatokia eta Ekintza Plan berria jai berdinzaleen alde

Tolosa jai-gune eta -giroetan berdintasunerantz aurrera egiteko jaien behatokia duen udalerri bakanetakoa da. Legegintzaldi ho-

### Nuevo protocolo de actuación contra la violencia machista

Tras la evaluación y conclusiones del I protocolo, durante esta legislatura se ha redactado el II protocolo de actuación y coordinación interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres y otras víctimas de violencia machista.

### Observatorio de Fiestas y nuevo Plan de Acción para unas fiestas más igualitarias

Tolosa es uno de los pocos municipios que cuenta con un observatorio de fiestas para avanzar hacia la igualdad en los espacios y

netan, jai berdinzaleen aldeko lehen Ekintza Plana egin da, Jaien Berdintasunerako Behatokiak orain arte egindako lanari jarraipena emanez eta indartuz.

## Genero-ikuspegia txertatzea udal-politikan

Tolosako Udalak politika publikoetan genero-zeharkakotasuna eta ikuspegi feminista sustatzeko eta ezartzeko duen jardun-estrategiaren barruan kokatzen da proiektu hau. Urte hauetan, udal-prozeduretan berdintasun-irizpideak txertatzeko barne-gida bat egin da; egindako planetan berdintasunerako irizpideak txertatu dira, eta genero-ikuspegia ere sartu da parte hartzeari eta gardentasunari buruzko araudia egiteko prozesuan.

ambientes festivos. Durante esta legislatura se ha elaborado el primer Plan de Acción para unas fiestas más igualitarias dando continuidad y reforzando el trabajo realizado por el Observatorio de Igualdad de Fiestas hasta el momento.

## Incorporación de la perspectiva de género en la política municipal

Este proyecto se enmarca dentro de la estrategia de actuación del Ayuntamiento de Tolosa para promover e implementar la transversalidad de género y la perspectiva feminista en las políticas públicas. Durante estos años se



## Jabetze Eskola gero eta sendoago

Legealdi honetan, nabarmen sendotu da Jabetze Eskola; emakumeen arteko sareak eta hainbat ekimen kolektibo sortu dira ikasleen artean. Jarduerak askotarikoak dira, eta parte hartzen duten emakumeek eta izen-emate kopuruak etengabe egin dute gora urtez urte.






ha elaborado una Guía interna para incorporar los criterios de igualdad en los procedimientos municipales; se han integrado los criterios para la igualdad en los planes realizados y también se ha incluido la perspectiva de género en el proceso de elaboración de la normativa de participación y transparencia.

## Una Escuela de Empoderamiento cada vez más consolidada

Durante esta legislatura se ha consolidado de forma significativa la Escuela de Empoderamiento y se han creado redes entre mujeres y diversas iniciativas colectivas entre las alumnas. Las actividades son cada vez más variadas y el número de mujeres participantes y de inscripciones crece ininterrumpidamente año tras año.

**2022an, honako hauek izan dira sektoreka bideratutako laguntzak:**
En 2022 las ayudas destinadas por sectores han sido las siguientes:

- **Jaiak** | Fiestas: **105.134 €**
- **Gaztedia** | Juventud: **40.000 €**
- **Kultura** | Cultura: **191.500 €**
- **Euskara** | Euskera: **351.752 €**
- **Kirola** | Deporte: **542.000 €**
- **Garapen ekonomikoa** | Desarrollo económico: **33.447 €**
- **Azokak** | Ferias: **8.500 €**
- **Merkataritza** | Comercio: **122.500 €**
- **Ingurumena** | Medio Ambiente: **28.200 €**
- **Berdintasuna** | Igualdad: **16.000 €**
- **Aparkalekuak** | Aparcamientos: **50.000 €**
- **Etxebizitzaren alokairua ordaintzea**
  Pago alquiler vivienda: **40.000 €**
- **Etxebizitzak eraberritzea**
  Reformas viviendas: **190.000 €**
- **Gizarte Zerbitzuak** | Servicio Sociales: **447.600 €**
- **Hezkuntza** | Educación: **60.000 € ***

** Dirulaguntza hau berria da eta Tolosako ikastetxe guztientzako da. | Nueva subvención para todos los centros de Tolosa.*



# Lurralde arloa

# Ámbito de territorio

**Legegintzaldi honetan, lurralde arlora bideratutako aurrekontua 33.319.293 €-koa izan da, hau da, udal-aurrekontu osoaren % 24,30.**

Legegintzaldi honetan, hauek izan dira arlo horren helburuak:

- **Espazio publikoa eta udal-eraikinak baldintza onetan mantentzea.**
- **Udalerriko irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea, mugikortasun-eredu jasangarriagoen alde.**
- **Hiri-berroneratze integratua sustatzea.**
- **Udal-ekipamenduen plangintza egitea.**
- **Udalerriko ingurumen jasangarritasuna hobetzea.**

Azpimarratu behar da aurreko helburuak lortzeko egin diren jarduera nagusiak, entzute eta partehartze prozesuen mende jarri direla.

Durante esta legislatura, el presupuesto destinado a este ámbito ha ascendido a 33.319.293 € representando un 24,30 % del total de presupuesto municipal.

Los objetivos durante esta legislatura en este ámbito han sido:

- **Mantener el espacio público y los edificios municipales en las mejores condiciones.**
- **Mejorar la accesibilidad y movilidad del municipio, a favor de modelos de movilidad más sostenibles.**
- **Fomentar la regeneración urbana integrada.**
- **Realizar la planificación de los equipamientos municipales.**
- **Mejorar la sostenibilidad medioambiental del municipio.**

Hay que destacar que las principales actuaciones realizadas para la consecución de los anteriores objetivos han sido sometidas a procesos de escucha y participación ciudadana.

# Espazio publikoa mantentzeari dagokionez

## En relación al mantenimiento del espacio público







> Legegintzaldi honetan garrantzi berezia eman zaio kaleak garbitzeko zerbitzuari. **Emandako zerbitzua hobetzeko kontratua berritu da,** eta zerbitzurako makineria berria ez ezik, eguneroko plangintzarako, koordinaziorako eta antzemandako beharrei erantzuteko arduradun bat izendatu da.

**Zerbitzuaren kostua hileko 127.482,33 €-koa da**. Beraz, aurreko legealdian baino 34.000 € gehiago bideratzen dira hilean zerbitzura. Atal honetan, **azpimarratzekoak dira pandemiaren hilabeteetan egindako garbiketa- eta desinfekzio-lanak**.

> **Mantentze-lanen urteko planak garatu dira,** besteak beste, barnebilduta asfaltatzea, ibaia garbitzea, udal-eraikinak garbitzea, hilerria, izurriteak erauztea, inausketa-lanak eta lorezaintza-lanak.

Halaber, kaleak, haur-parkeak eta udal-eraikinak hobetu dira, eta zenbait kontzientziazio-programa gauzatu dira.

**Jarduera eta zerbitzu guzti horietarako aurrekontua 11.844.132 €-koa izan da lau urte hauetan.**

> Esta legislatura se ha dado especial importancia al **servicio de limpieza viaria. Se ha renovado el contrato para la mejora del servicio prestado,** con nueva maquinaria para el servicio y una persona encargada para la planificación diaria y coordinación y respuesta de las necesidades detectadas.

**El coste del servicio es de 127.482,33 € al mes.** Por lo que se destinan al servicio alrededor de 34.000 € más al mes que en la pasada legislatura. En este apartado, **cabe destacar las labores de limpieza y desinfección llevadas a cabo durante los meses de pandemia.**

> Se han desarrollado **Planes Anuales de labores de mantenimiento** incluyendo el asfaltado, la limpieza del río, limpieza de edificios municipales, cementerio, la erradicación de plagas, trabajos de poda y labores de jardinería.

También se han mejorado calles, parques infantiles y edificios municipales, y se han llevado a cabo diferentes programas de concienciación.

**El presupuesto destinado a todas estas actuaciones y servicios ha ascendido en estos cuatro años a 11.844.132 €.**

# Irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeari dagokionez

## En relación a la mejora de la accesibilidad y de la movilidad








### Mugikortasun Plan berria, Tolosa Badabil

Legegintzaldi honetan Mugikortasun Plan berri bat garatu da, genero-ikuspegia barne hartzen duena, mugikortasun-eredu jasangarriagoen alde.

Plan berrian oinarrituta, **hainbat kale eta espazio berritu dira,** oinezkoa protagonista dela: **Paper kalea, Laskorain kalea, Gernikako Arbolaren bigarren fasea** –saneamendu-sarea berritzearekin batera– **eta Euskal Herria plazako arkupeetako zoladura** ere berritu da.

Larramendi eta Pedro de Tolosa - San Frantzizko arteko bidegurutzetan **biribilgune berriak** sortu dira, oinezkoen joan-etorria eta fluxuak errazteko; eta oinezkoentzako zubi berri bat eraikitzeari ekin zaio, Belate eta Larramendi auzoak lotzeko.

### Nuevo Plan de Movilidad, Tolosa Badabil

En esta legislatura se ha desarrollado un nuevo Plan de Movilidad que incluye la perspectiva de género, a favor de modelos de movilidad más sostenibles.

En base al nuevo plan **se han renovado diferentes calles y espacios** con el peatón como protagonista: **Paper kalea**, **Laskorain kalea, segunda fase de Gernikako Arbola**- junto a la renovación red de saneamiento- y la **renovación del pavimento de los soportales de la plaza Euskal Herria.**

También se han creado **nuevas rotondas** en Larramendi y Pedro de Tolosa-San Francisco para facilitar los flujos y el tránsito peatonal y se está construyendo un nuevo puente peatonal que unirá Belate con el barrio de Larramendi.

### Aparkaleku aukeren azterketa

Legegintzaldi honetan, Zumarditxikiaren proiektuei lotutako hainbat aparkaleku-azterlan egin dira, eta etorkizuneko aparkaleku-proiektuen oinarriak landu dira.

### Bizikletaren erabilerari bultzada eta bizikleta aparkaleku berriak

Udalerriko hainbat tokitan bizikletentzako 200 aparkaleku baino gehiago sortu dira, erdiguneko tren geltokiaren ondoan estalitako aparkaleku bat sortu da eta bidegorriko hainbat zati asfaltatu dira (Araba etorbidea, San Frantzisko...). Zumardihandian “Gurpilgunea” martxan jartzea ere sustatu da, bizikletak konpontzeko eta horien erabilera bultzatzeko helburuarekin.

### Estudio de alternativas de aparcamiento

Durante esta legislatura se han realizado varios estudios de aparcamiento ligados al proyecto de Zumarditxikia y trabajado las bases de proyectos futuros de aparcamiento.

### Impulso decidido al uso de la bicicleta y nuevos aparcabicis

Se han creado más de 200 aparcamientos para bicicletas en diferentes puntos del municipio, un aparcamiento cubierto al lado de la estación “Apeadero” y se han asfaltado diferentes tramos de bidegorri (Araba etorbidea, San Francisco...). Se ha promovido, también, la puesta en marcha de “Gurpilgunea” en Zumardihandia, un nuevo espacio para reparar bicicletas e impulsar su uso.

# Hiri-berroneratze integratuari dagokionez

# En relación a la regeneración urbana integrada





### Zumarditxikia, herritarren gozamenerako gune berria

Egungo gobernu taldeak apustu ausarta egin du gune hori berreskuratzeko eta tolosarren esku jartzeko. Proiektua egiteko, hainbat partaidetza-prozesu egin dira eta gauzatutako proiektua ere, lehen partaidetza-prozesuan herritarrek planteatutako helburu eta irizpideetan oinarrituta dago.

Proiektua egiteko, kontuan hartu dira, halaber, Mugikortasun Plana, eremuaren uholde-arriskua, irisgarritasun unibertsala eta genero-ikuspegia. Ingurumena errespetatzen duen proiektu honek tolosar guztiek erabiltzeko gune bat sortu nahi du; ibaira begira dagoen parke bat, urte osoan zehar erabilera ugari ahalbidetuko dituena.

### Zumarditxikia, un nuevo espacio para el disfrute de la ciudadanía

El actual equipo de gobierno ha hecho una apuesta valiente por recuperar este espacio y ponerlo a disposición de las y los tolosarras. Para elaborar el proyecto se han realizado varios procesos participativos y el proyecto llevado a cabo parte de los objetivos y criterios planteados por la ciudadanía en el primer proceso participativo.

El proyecto se ha elaborado teniendo en cuenta, a su vez, el Plan de Movilidad, el riesgo de inundabilidad de la zona, la accesibilidad universal y la perspectiva de género. Un proyecto que respeta el medio ambiente, busca crear un espacio para el uso de todas y todos los tolosarras; un parque que mira al río y que permitirá distintos usos durante todo el año.

### Gorritiko eremua eraberritzea

Legegintzaldi honetan, Gorritiko eremu osoa berrurbanizatzeko eta Oyarbide eraikineko eranskina eraisteko proiektuak garatu dira. Lanen ondoren, gune irisgarriagoa eta atseginagoa izango da, eta ibaiaren ondoan pasealekua sortuko da. Obrak hasita daude.

Jarduera honek 1,3 milioi euroko aurrekontua du guztira.

### Zezen plaza osorik eraberritzea

Azken bi faseak gauzatu dira erreforma integrala burutzeko. Aurrerantzean, plazak araudi guztiak beteko ditu, eta askoz seguruagoa eta

### Renovación del ámbito de Gorriti

Durante esta legislatura se han desarrollado los proyectos de derribo y reurbanización de todo el ámbito de Gorriti, tras los trabajos será un espacio más accesible y amable, con un paseo junto al río. Las obras están iniciadas.

Esta actuación cuenta con un presupuesto total de 1,3 millones de euros.

### Reforma integral de Zezen plaza

Se han llevado a cabo las dos últimas fases para su reforma integral. En adelante, la plaza cumplirá todas las normativas y será mucho más seguro y adecuado para cualquier actividad que se lleve a cabo, en carnavales o durante el resto del año. El presupuesto ha ascendido a aproximadamente 1.600.000 €.



egokiagoa izango da inauterietan edo urteko gainerako egunetan egiten den edozein jardueratarako. Aurrekontua 1.600.000 € ingurukoa izan da.

## Usabal eta San Esteban: Plan Orokorraren egokitzapena

Auzotarren aldarrikapen bati erantzunez, Usabal eremuko Plan Orokorraren aldaketa abian jarri da, eremuaren zati bat ez-industrialtzat jotzeko, eremu horretako etxebizitzak aurrerantzean antolamendutik kanpo egon ez daitezen.

Azkenik eta ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, Udala lanean eta urratsak ematen aritu da San Esteban auzoaren etorkizuneko garapenean aurrera egiteko.





## Hiri-espazioen birgaitzearekin lotutako garapenean dauden beste proiektu batzuk

> Araba etorbideko plazak eraberritzea.

> Iurramendiko eremuan herritarren eskura dagoen parke berria.

> Triangulo plazako zoladura berritzeko proiektua.

> San Blas auzoa berrurbanizatzeko proiektua.

## Usabal y San Esteban: Adecuación del Plan General

En respuesta a una reivindicación vecinal se ha puesto en marcha la modificación del Plan General en el ámbito de Usabal para declarar parte del ámbito como no industrial para que las viviendas situadas en dicho espacio, en adelante, dejen de estar fuera de ordenación.

Por último y no menos importante, el Ayuntamiento ha estado trabajando y dando pasos en el futuro desarrollo del barrio de San Esteban.

## Otros proyectos en desarrollo ligados a la regeneración de espacios urbanos

> Reforma de las plazas de Araba etorbidea.

> Nuevo parque a disposición de la ciudadanía en el ámbito de Iurramendi.

> Proyecto para la renovación del pavimento de la plaza del Triángulo.

> Proyecto de reurbanización de la zona de San Blas.

# Ekipamenduen plangintzari dagokionez

# En cuanto a la planificación de los equipamientos







## Eskualdeko ospitale berria Tolosan: Plan Orokorraren aldaketa

Kokagune aukerak aztertu eta eskualdeko ospitale publikorako behin betiko kokapena zehaztu ondoren, Udalak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan, abian du Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko prozesua.

## Kultur ekipamenduak berrantolatzeko azterlana: udal liburutegi berria Kultur Etxean

Udalak azterlan eta plangintza bat egin du kultur zerbitzuak eta ekipamenduak berrantolatzeko eta birkokatzeko, Udal Liburutegi berria Kultur Etxera eramateko. Aldi berean, liburutegi berriari buruzko proiektua garatu da; egungo beharrei erantzuteko liburutegi modernoagoa.

## Nuevo hospital comarcal en Tolosa: Adecuación del Plan General

Tras analizar posibles emplazamientos y definir la ubicación definitiva para el hospital público comarcal, en colaboración con el Departamento de Salud del Gobierno Vasco, el Ayuntamiento tiene en marcha el proceso para la modificación del Plan General de Ordenación Urbana.

## Estudio de reordenación de equipamientos culturales: nueva Biblioteca municipal en la Casa de Cultura

El Ayuntamiento ha realizado un estudio y planificación para la reordenación y reubicación de los servicios y equipamientos culturales, a fin de trasladar la nueva Biblioteca Municipal a la Casa de Cultura. Paralelamente, se ha desarrollado el proyecto sobre la nueva biblioteca; una biblioteca más moderna en respuesta a las necesidades actuales.

## Amarotzeko ekipamenduak: Auzoetxea, haur-parkea eta espazio estalia

Auzoetxea berritu da eta haurrentzako parke berri bat eta erabilera anitzeko gune estali berri bat sortu dira.
Aurrekontua 811.062,01 €-koa izan da.

## Euskal mendizaletasunaren museo berria Tolosako Arkauteko txaletean

Udalarena den Larramendi auzoko Arkaute txaletak hartuko du Euskal Mendizaletasunaren Museoa, EMMOA Fundazioaren eskutik.

Fundazioak museo-proiektua egin du, Euskal Mendizale Federazioak obra proiektua gauzatu du eta lanak Tolosako Udalaren esku geratuko dira.

## Equipamientos de Amarotz: Auzoetxea, parque infantil y espacio cubierto

Se ha renovado el Auzoetxe y creado un nuevo parque infantil y un nuevo espacio cubierto multiusos. El presupuesto ha ascendido a 811.062,01 €

## Nuevo museo del montañismo vasco en el chalet de Arkaute de Tolosa

El chalet de Arkaute situado en el barrio de Larramendi,propiedad del Ayuntamiento, acogerá el Museo del Montañismo Vasco de la mano de la Fundación EMMOA.

La fundación ha realizado el proyecto museístico, la Federación Vasca de Montaña realizará el proyecto de obra y los trabajos correrán a cargo del Ayuntamiento de Tolosa.

# Udalerriko ingurumen jasangarritasuna hobetzeari dagokionez

## En relación a la mejora de la sostenibilidad medioambiental del municipio







### Klima Aldaketaren aurkako Tokiko Plana eta trantsizio energetikorako urrats sendoak

Klima Aldaketaren aurkako Tokiko Plana egin da, pertsonen ingurumen-aztarna murrizteko politika publikoak sustatzeko.

7 lan-ildo eta lehentasunezko ekintza zehaztu dira. Horien baitan udal-eraikinetan (Ferialekua eta Uzturpe) eguzki-plakak instalatu eta kaleak eta eraikin publikoak eraberritzeko proiektuetan LED argiak instalatatu dira.

Azken urteotako jardueren ondoren, 2023an argiteria publikoa % 100 led eta kontsumo txikikoa izango da, eta fakturan % 70 inguru aurreztea eta ingurumena zaintzen laguntzea lortu da, $CO_2$ emisioak nabarmen murriztuz.

### Plan Local contra el Cambio Climático y pasos firmes hacia la transición energética

Se ha elaborado el Plan Local contra el Cambio Climático para promover políticas públicas que reduzcan la huella ambiental de las personas.

Se han definido 7 líneas de trabajo y acciones prioritarias que ya se están llevando a cabo a través de la instalación de placas solares en edificios municipales (Ferial y Uzturpe) y la instalación de alumbrado LED en proyectos de reforma de las calles y edificios públicos.

Tras las actuaciones de estos últimos años, este año 2023 el alumbrado público será 100 % led y de bajo consumo y se ha logrado un ahorro de aproximadamente el 70 % en la factura y coadyuvar a la conservación del medio ambiente disminuyendo las emisiones de $CO_2$ de forma considerable.

### Hiribusa eta udal ibilgailuen parke elektrikoa

Tolosa da Hiribus zerbitzua zero emisioko autobus % 100 elektriko baten bidez eskaintzearen aldeko apustua egin duen lehen udalerria. Ibilgailu elektrikoen parkea ere berritu da, eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko, Tolosa MUGI sistemari atxiki zaio.

Urtero 335.000 €-ko aurrekontua bideratzen da horretara.

### Hiribus y parque móvil municipal eléctrico

Tolosa es el primer municipio vasco que ha hecho una apuesta por el servicio Hiribus por medio de un autobús 100 % eléctrico de cero emisiones. También se ha renovando el parque móvil con vehículos eléctricos y para promover el uso del transporte público, Tolosa se ha adherido al sistema MUGI.

El presupuesto destinado cada año es de 335.000 €.

### Etxebizitza-eraikinak birgaitzeko eta energia-eraginkortasunerako laguntzak

Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzen ordenantza garatu da. Helbu-

rua da Tolosako etxibizitza eta eraikinak jasangarriagoak eta irisgarriagoak bilakatzea. Horretarako, 6 dirulaguntza lerro sortu dira, besteak beste igogailuak jartzeko eta efizientzia energetikoaren ikuspuntutik leihoak, teilatuak edota fatxadak berritzeko.

## Ingurumena eta landa-ingurunea zaintzeko neurri zehatzak

Elosegi parkea ireki da eta Baso Eskola programa sustatu da.

Landa eremuari lotuta, Tolosako ingurune naturalari dagokion balioa emate aldera mendi ibilbideen inguruko informazio eskuorria egin da eta hainbat ekintza zehatz ere bai: Urkizun ur deposito berria Antenan, abeltzaintza sustatzeko; Banda Zabala Bedaion; landa eremuen etorkizunari buruzko azterketa; baserri bideen hobetzea eta seinaletika berria, besteak beste.

Lau urte hauetan, 462.404,76 € bideratu dira landa-ingurunera.

## Zaratari buruzko ordenantza berria eta zaraten aurkako pantaila akustikoak

Zaratari eta bibrazioei buruzko ordenantzari hasierako onespena eman zaio, kutsadura akustikoa prebenitu eta zaintzeko neurriak hartzeko, bizikidetza errazteko, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta ingurumenean eragina duen kutsadura akustikoa murrizteko.

Legegintzaldi honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, zarataren aurkako pantailak jarri dira udalerriko hainbat eremutan, bizilagunen eskaerei erantzuteko: erdigunea- biala eta Iparragirre-N-1.

## Ayudas a la rehabilitación y eficiencia energética en edificios de viviendas

Se ha elaborado una nueva Ordenanza de subvenciones para la rehabilitación de viviendas y edificios residenciales. El objetivo es hacer más accesibles y sostenibles las viviendas y los edificios de Tolosa. Se han creado 6 líneas de ayudas para la instalación de ascensores y la renovación de ventanas, tejados y/o fachadas, entre otras, desde el punto de vista de la eficiencia energética.

## Medidas concretas para la conservación del medio ambiente y medio rural

Se ha abierto al público el Parque Elosegi y fomentado el programa Baso Eskola.

En relación al medio rural, con el fin de poner en valor y dar a conocer el entorno rural de Tolosa, se ha elaborado un folleto informativo sobre rutas de montaña y se han llevado a cabo las siguientes acciones concretas: nuevo depósito de agua en la Antena de Urkizu para fomentar la ganadería; instalación de la banda-ancha en Bedaio; estudio sobre el futuro de las zonas rurales; mejora de los caminos rurales y nueva señalética a caseríos, entre otras.

El presupuesto destinado al medio rural durante estos cuatro años asciende a 462.404,76 €.

## Nueva Ordenanza de Ruido e instalación de pantallas acústicas

Se ha aprobado de forma inicial la ordenanza de ruido y vibraciones para adoptar medidas de prevención, reducción y vigilancia de la contaminación acústica, con el fin de favorecer la convivencia y mejorar la calidad de vida de las personas y reducir la contaminación acústica que repercute en el medio ambiente.

Durante esta legislatura, en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa, se han instalado pantallas antiruido en varias zonas del municipio, en respuesta a las demandas de vecinos y vecinas: vial- zona centro del municipio, Barrio Iparraguirre- N-1.











# Antolakuntza arloa

# Ámbito de organización

**Legegintzaldi honetan, antolakuntza arlora bideratutako aurrekontua 35.634.425 €-koa izan da, hau da, udal-aurrekontu osoaren % 26.**

**Gure helburu nagusia gure udalaren antolaketa garai berrietara egokitzen laguntzea izan da, herritarren eskaerei modu eraginkorragoan eta efizienteagoan erantzun ahal izateko, ematen diren zerbitzuen kalitatea bermatzeko eta, hori guztia, kudeaketa ekonomiko-finantzario zorrotz baten bidez.**

**Hori lortzeko egindako ekintzen artean honako hauek azpimarra ditzakegu:**

Durante esta legislatura el presupuesto destinado a este ámbito ha ascendido a 35.634.425 € representando un 26 % del total de presupuesto municipal.

En este ámbito el principal objetivo ha sido favorecer la adaptación de la organización de nuestro ayuntamiento a los nuevos tiempos para poder responder de manera más eficaz y eficiente a las demandas de la ciudadanía, garantizar la calidad en los servicios que se prestan y, todo ello, mediante una gestión económico-financiera rigurosa.

Entre las acciones llevadas a cabo para conseguirlo podemos destacar:

## Antolaketa arrazionalagoa

Udalaren jarduera hiru informazio-batzorderen eta lan-esparruren inguruan antolatu dugu, honako izen eta eskumen hauekin:

- **Herritarrak:** gizarte-zerbitzuak, kultura, gazteria, hirugarren adina, kirola, parte-hartzea, genero-berdintasuna, euskara.

- **Lurraldea:** udal-ekipamendu, azpiegitura eta instalazioekin, hirigintzarekin, ingurumenarekin, hiri-hondakin solidoen bilketa eta tratamenduarekin zerikusia duena.

- **Antolakuntza:** udalaren zerbitzura dauden pertsonekin zerikusia duen guztia, udal-zerbitzu publikoak emateko lege, ekonomia, finantza eta administrazio-euskarria, bai eta udaltzaingoa ere (trafikoa, bide-segurtasuna, herritarrak, animaliak).

Antolaketa berri horri esker, azterketa, analisia eta erabakiak hartzea sistematizatu ahal izan da, eta horrek kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia handiagoa ekarri du eta herri bat osatzen duten hiru elementuen ikuspegi integrala: pertsonak, lurraldea eta Udala erakunde gisa.

## Una organización más racional

Hemos organizado la actividad el Ayuntamiento en torno a únicamente tres comisiones informativas y ámbitos de trabajo con las siguientes denominaciones y competencias:

- **Ciudadanía:** Servicios sociales, cultura, juventud, tercera edad, deporte, participación, igualdad de género, Euskera...

- **Territorio:** lo relacionado con los equipamientos, infraestructuras e instalaciones municipales, urbanismo, medio ambiente, recogida y tratamiento de residuos sólidos urbanos.

- **Organización:** todo lo relacionado con las personas al servicio del ayuntamiento, el soporte legal, económico-financiero, y administrativo para la prestación de los servicios públicos municipales, así como la Policía municipal (tráfico, seguridad vial, ciudadana, animales).

Gracias a esta nueva organización se ha podido sistematizar el estudio, análisis y toma de decisiones, provocando una mayor eficacia y eficiencia en la gestión y una visión integral de los tres elementos que conforman un pueblo: las personas, el territorio y el Ayuntamiento como organización.



## Udalaren ohiko jarduera koordinatzeko talde bat sortzea

Legegintzaldi honen hasieran lantalde bat osatu zen, udalean erantzukizun politiko eta teknikoa duten pertsonekin. Talde honen eginkizuna Udalaren ohiko jarduera koordinatzea da, Udalaren kudeaketarekin zerikusia duen informazio guztia partekatuz eta hortik aurrera, taldean lan egitea, ematen ditugun zerbitzuen kalitatea eraginkorragoa eta efizienteagoa izan dadin.

## Ekonomia eta finantza kudeaketa hobetzea

> Urte hauetan, **diru-sarreren optimizazioa bermatzeko eta, aldi berean, gastuaren kudeaketa zorrotza bermatuko duen sistema bat zaintzeko prozedurak diseinatu eta txertatu dira.**

Era berean, Covid 19 pandemiak izan duen eragin negatiboa eta Errusiak Ukrainari egindako inbasioak munduko ekonomian izan dituen ondorioak aintzat hartuta, 2021ean tokiko zerga guztiak izoztea erabaki zen, familien ekonomiei eta profesional eta enpresei laguntzeko neurri gisa, eta 2022an eta 2023an zergak KPIren azpitik igoko dira, inflazioa arintzeko. Hori guztia, Udalak jasaten dituen obra eta zerbitzuen kostuak nabarmen handitzen ari badira ere.

Neurri horrek zorroztasuna eskatzen du gastua kontrolatzeko orduan, herritarrei laguntzeko neurri horiek hartu ahal izateko.

**> 2020an Udalak 4.163.217,09 euroko zorpetzea zuen. Gaur egun, Udalaren zorpetzea 1.312.432,97 eurokoa da, eta % 68,48 jaitsi da.**

## Creación de un equipo de coordinación de la actividad ordinaria del Ayuntamiento

Al comienzo de esta legislatura se conformó un equipo de trabajo conformado con las personas con responsabilidad política y técnica del Ayuntamiento. La función de este equipo es coordinar la actividad ordinaria del Ayuntamiento desde el compartir toda la información relacionada con la gestión del Ayuntamiento y, a partir de ahí, trabajar en equipo en pro de una mayor calidad de los servicios que prestamos con mayor eficacia y eficiencia.

## La mejora de la gestión económico-financiera

> Durante estos años se han **diseñado e incorporado procedimientos para garantizar la optimización de los ingresos y, al mismo tiempo, velar por un sistema que garantice una rigurosa gestión del gasto.**

Asimismo se ha optado, atendido el impacto negativo que la pandemia por Covid 19 así como los efectos provocados por la invasión de Rusia a Ucrania en la economía mundial, a congelar todos los tributos locales en el 2021 como medida de apoyo a las economías familiares y a los profesionales y empresas y en 2022 y 2023 a subir los tributos por debajo del IPC para paliar la inflación. Y todo ello a pesar de que los costos de las obras y servicios que se sufragan desde el Ayuntamiento se están incrementado de manera importante.

Una medida que exige ser como decíamos muy rigurosos en el control del gasto para poder adoptar estas medidas de ayuda a la ciudadanía.

**> El año 2020 el Ayuntamiento tenía un endeudamiento de 4.163.217,09 euros. Hoy el endeudamiento del Ayuntamiento es de 1.312.432,97 euros, ha disminuido un 68,48 %.**

## Udaltzaingoaren Plan Zuzentzaile berria

Planaren helburua zerbitzua egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzea eta Udaltzaingo modernoa, inplikatua eta hurbila sustatzea da. Halaber, bide-segurtasuna sustatu da ikastetxeekin koordinatuta, eta baita “Ikastetxeen karabana” ekimena ere.

## Nuevo Plan Director para la Polícía Municipal

El objetivo del plan es adecuar el servicio a las necesidades actuales y futuras y promover una Policía Municipal moderna, implicada y cercana. Se ha fomentado también la seguridad vial en coordinación con los centros escolares y la iniciativa ‘Ikastetxeen karabana’.







## Administrazio elektronikoa abian jartzea

Sistema informatikoa berrikusi eta berregokitu da, garai berrietara egokitzeko.

Horretara behartuta egonik, enpresa eta profesional guztiak Udalarekin elektronikoki erlazionatu ahal izango direla bermatzea lortu da, eta baita behartuta egon gabe ere, hala nahi duten pertsona fisikoak ere.

UDATEn kutxazain bat jarri da, udal-izapideak modu deszentralizatuan eta ordutegi zabalagoetan egin ahal izateko.

Hala ere, **pertsona guztiek bermatuta dute eta izango dute aurrez aurreko arreta.**

## Puesta en marcha de la Administración electrónica

Se ha procedido a revisar y readecuar el sistema informático adaptándolo a los nuevos tiempos.

Se ha conseguido garantizar que todas las empresas y profesionales, obligados a ello, se puedan relacionar electrónicamente con el Ayuntamiento, así como aquellas personas físicas, que, sin estar obligadas, así lo deseen.

Se ha instalado en UDATE un “cajero” desde el que poder realizar trámites municipales de manera descentralizada y en horarios más amplios.

No obstante, **seguiremos garantizando**, en todo caso, **la atención presencial a todas aquellas personas que así lo escojan.**





## UDATEn herritarren arretarako zerbitzua hobetzea

Legegintzaldi honetan, herritarren arretarako langileen egitura indartu egin da, 4 pertsona izatetik 6 izatera igaro baita. UDATEn ere indartu egin da etxebizitza zerbitzua, tolosarren arretarako pertsona bat gehiagorekin. Ahots-postontzi pertsonalizatua jarri da, erantzun ezin izan diren deiei erantzuteko eta herritarrek behar duten ordutegian eta egunean hitzordua eskatzeko aukera ere jarri da.

Legegintzaldi honetatik aurrera, beste administrazio batzuekin (Eusko Jaurlaritza, Aldundia eta Trafikoko Zuzendaritza Orokorra) egin beharreko izapideak UDATEn egin ditzakete hala nahi duten herritarrek, Donostiara joan beharrik izan gabe.

## Mejora del servicio de atención ciudadana en UDATE

Durante esta legislatura se ha reforzado la estructura del personal de atención ciudadana, pasando de 4 a 6 personas. También se ha reforzado en UDATE el servicio de vivienda con una personas más para la atención de las y los tolosarras. Se ha instalado un buzón de voz personalizado para responder las llamadas que no han podido ser atendidas y la posibilidad de poder pedir cita previa en el horario y día que ciudadano/a precise.

Desde esta legislatura los trámites con otras Administraciones (Gobierno Vasco, Diputación y DGT) se pueden realizar desde UDATE evitando que la ciudadanía tenga que desplazarse a Donosti.



## Udalean lan egiten duten pertsonen kudeaketari dagokionez:

Udal-plantilla osoaren lanpostuen eta eginkizunen balorazioa, arrazionalizazioa eta egokitzapena egin da, zerbitzuak behar berrietara egokitzeko.

- Udal-plantillaren bitartekotasuna eta belaunaldi-erreleboa murrizteko prozesuak abian jarri dira, eskaintza publikoaren, eta egonkortzeko eta sendotzeko prozesuen bidez.
- Telelana ezarri da.
- Etengabeko prestakuntzarako plan bat garatu da.
- Ondare-ondasunen udal-inbentarioa egin da.

Atal hau amaitzeko, azpimarratu behar da Udalak, pandemiaren hilabeterik gogorrenetan, langileen inplikazioarekin, bere zerbitzu guztiak antolatu zituela, bereziki herritarren arretarako zerbitzua, herritarrek behar izan zitzaketen zerbitzuak eskaini ahal izateko.

## En relación con la gestión de las personas que prestan sus servicios en el Ayuntamiento:

- Valoración, racionalización y adecuación de los puestos de trabajo y de las funciones de toda la plantilla municipal. Con el objetivo de adecuar los servicios a las nuevas necesidades.
- Puesta en marcha de los procesos para reducir la interinidad de la plantilla municipal y el relevo generacional con procesos de oferta pública, estabilización y consolidación.
- La implantación del teletrabajo.
- La aprobación de un plan para su formación continua.
- Elaboración del inventario municipal de bienes patrimoniales.

Para finalizar este apartado es justo destacar que el Ayuntamiento, durante los meses más duros de la pandemia, con la implicación de la plantilla, organizó todos sus servicios, especialmente el servicio de atención ciudadana, para poder ofrecer los servicios que la ciudadanía pudiera precisar.





# 2019
# 2023

**Legealdirako Planaren kudeaketa memoria**

Memoria de gestión del Plan de Legislatura

TOLOSA